

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

**ARAUA MOLDATZEKO PROPOSAMENA, EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA,
ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ORDENANTZARI**

EH Bildu udal taldeak aztertzeko aurkezten du araua aldatzeko ondoko proposamena, ulertzen baitugu hobariaren helburua izan behar duela laguntzea interes sozialeko jarduerak eta, bereziki, zailtasun ekonomikoak dituzten donostiarrak; ez, ordea, irabazi asmoko jarduera ekonomikoak:

Hau jasotzen du orain ordenantzak:

12. art. Hobariak

Hobaria izango dute:

1.- Urbanizazio enpresek.

Kuotaren %50, interesatuek lanak hasten direneko zergaldian eskatzen badute, ondasun higiezinak hirigintzako urbanizazio, eraikuntza eta sustapen enpresen jardueraren xede badira, direla obra berria edo horri parekatzeko moduko birgaitzea, eta ibilgetura bildutako ondasunak ez badira.

Aplikazio epea lanei ekin ondorengo zerga ekitaldian hasi eta haiek amaitu ondorengo ekitaldian bukatuko dira, beti ere denbora tarte horretan urbanizazio edo eraikuntza lanen bat gauzatzen bada; eta inoiz ezingo du gainditu hiru zergaldi.

EH Bilduren proposamena:

KENTZEA Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga Ordenantza, 12. artikulua (Hobariak) lehen puntua.

Donostian, 2021eko abuztuaren 3an.

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea